

eta hik? nola bizi dunk

euskara?

ikamizka



ASKA EZANK KORAPILOA!

OTSAILAK 16

**MUKO ORONA
IDEO CAMPUSEAN
(HERNANI)**

MARTXOAK 9

**UPV/EHUKO
INFORMATIKA
FAKULTATEAN
(DONOSTIA)**

MARTXOAK 22

**DEUSTUKO
UNIBERTSITATEAREN
CAMPUSEAN
(DONOSTIA)**



INFO+ ETA
IZEN EMATEA:
IKAMIZKA.COM

Donostian, 2017ko urtarrilaren 12an

Gazteak euskararen eta honen erabileraren inguruan sentsibilizatzeko premia.

Gazteak dira euskararen etorkizuna. **Ezagutza baino** gehiago, ordea, **erabilpena** da gakoa, eta ez bakarrik etxeko edo ikastetxeko testuinguruan. Honek duen garrantziaren inguruko **sentsibilizazioa** aski errotua dago belaunaldi helduagoen artean, baina **ez hainbeste gazteen artean**.

Azken hauengana iristeko, edozein soziolinguistaren diskurtsoa baino **eraginkorragoa da etxean entzuten duten musikariaren edo ikasten ari diren arloko profesional gazte** baten hitzak entzutea, adibidez.

Azken batean, argia da mezua: "Ei, gazte! **Erreferente gazte hauek**, euskara maitatzen harago, honela bizi dute euskara. Eta zuk?"

Erakunde publiko batentzat **gazteengana iristea ez da erraza** eta **gaztetzako** erakunde publikoak **ez dira oso erakargarriak**. GAZTEZULO da harreman horretan **zubi lanak** egiten dituen **tresna eraginkorra**.

Nondik dator Ika Mizka izena?

IKA MIZKA **hitz joko bat da, ika-mika** (eztabaida, hitzak) eta **zizka-mizka** (janaria) kontzeptuen arteko nahasketa da.

Hitz joku honekin proiektuaren **izaera partehartzailea** isladatu nahi da, alde batetik **eztabaidarako, hausnarketarako, ideia trukaketarako eta hizketarako aukera** bat dela adieraziz, eta bestetik **hizketaldi horietan janaria egongo** dela adierazteko.

Pintxoak eta edariak dauden **mahai baten bueltan, lagun artean lasaitasunez**, asialdi giro bat irudikatuz (taberna giroa) **euskararen inguruan ditugun korapiloak askatzeko**, gune eta une bat eskainiz.

Formatua

IKA MIZKAren edizio bakoitzak **bi fase** ditu: alde batetik **eztabaidarako mahainguruak** unibertsitatean, eta bestetik, mahainguru hauek promozionatzeko eta eztabaidarako gaiak planteatzen dituzten **bideo promozionalak**.

Irudia, diseinua eta estetikak garrantzia dute IKA MIZKAN, **kontzeptuak erlazionatzeko** tresna baitira. IKA MIZKAK **estilo eta marka propio** bat sortu du, beti **jarrera positibo** bat isladatuz, **landutako** edukiekin, **kalitatezkoa**.

Edizio bakoitzeko **bideo guztiek formatu eta diseinu berdina dute**, bata bestearekin erlazionatu ahal izateko eta IKA MIZKA **proiektuarekin identifikatzeko**.

Orokorrean, bideoetan IKA MIZKA **eztabaida saio bat irudikatzen da**. Bideoetako protagonistak, **pintxo eta edariz ornitutako mahai** baten bueltan ikusten dira, **euskararen** inguruan beren **esperientziak konpartitzen**.

Bideoetako **protagonistak tentuz** aukeratzen dira, **lidergo rola** bete behar dutelako eta unean uneko behar ditugun **eztabaidarako gaiak argudiatu eta menperatu** behar dituztelako.

Bideoetako **protagonistak tentuz** aukeratzen dira, **lidergo rola** bete behar dutelako eta unean uneko behar dugun **eztabaidarako gaiak argudiatu** behar dituztelako.

Mahinguru saioetan bideoetako estetika jarraitzen saiatzen gara. Mahaiak **altura baxukoak** dira, hizketaldirako eta elkar ulertzeko oztopo ez daitezten izan. Mahai gaineran bideoetan ebzala, pintxoak eta edariak.

Mahaiaren bueltan, **bi gonbitatu**- erreferente kokatzen dira (normalean bat **aurpegi ezaguna** izaten da eta bestea ikasten ari diren **arloko profesionala**) eta **4-5 ikasle**.

Aurkezle bat dago (Nerea Alias) saioaren **gidaritza lanak egiteko**: proiektuaren antolatzaileak aipatu, gobidatuak aurkeztu, saioaren dimamika azaldu, hizketagaiak planteatu, denbora tarteak kontrolatu, eta noski, IKA MIZKA saioa bera girotzen duena.

Saio bakoitzean, **20 minutuko 3** hizketaldi edo **txanda egiten** dira, **3 gai multzo desberdinekin**. **Lehenengo txandan**, mahaiko kideak elkarren artean **aurkezteko eta lehen hartuemana** egiten lagunduko dieten gaiak izaten dira: norberaren bizipenak, sentazioak, anekdotak...izaten dira.

Bigarren eta hirugarren txandatan, gai sakonagoak jorratzen dira. Planteatzen diren **gaiak, irekiak** dira beti. Hemen **ez dago erantzun zuzenik ez okerrik**. IKA MIZKAREN helburua **ez da erantzun zuzen bat topatzea, ezta jokabide egokia zein** den transmititzea. Kontrasanak, kezkak, sentipenak ... mahaigaineratzeko da IKA MIZKA, baina beti ere **besteren iritziak errespetatuz**.

3 txandak bukatuta, **saioa jai giroan amaitze** aldera, **ekitaldi kultural txiki** bat antolatzen da (kontzertu txiki bat, antzerki labur bat, dantza, bertso saio bat, bakarrizketa bat...) Hau **unibertsitatearen esku uzten** dugu. **Ikasleen inplikazioa** lortzeko eta **proiektuaren parte sentitu daitezen**, eskatzen diegu amaierako ekitaldi txiki hori beraiek antolatu dezaten.

Zabaltzen eta sareak hedatzen joan den proiektu irekia

IKA MIZKA etengabe **zabaltzen, hedatzen eta moldatzen** den proiektua da. Euskararen Nazioarteko Egunerako ekitaldi bakar bat bezala sortu bazen ere, urtetik urtera lortutako **emaitzak eta oihartzunak eragin dute proiektuaren zabalpen hori**.

Elkarlan sare handi bat sortu du urte guzti hauetan IKA MIZKAK:

- **Hiru unibertsitateak** elkatzen dituen **proiektu amankomun** bat da (EHU, MU, DEUSTO). IKA MIZKAK ere lagundu diete unibertsitateei, ikasleei zerbait berria eta desberdina eskaintzeko.
- Oraingoan, **13 fakultatetara** iritsi da
- **Bideo promozionalak** arlo askotan **berrerabiliak** izan dira: udaletako **euskara eta gazteria teknikariek** erabili dituzte, **hezkuntzan** (institutu eta euskaltegietan), **Hamaika TB-ko Harrapazank** saioan atal finkoa izan dute,...
- IKA MIZKAREN **webgunea MUKO komunizkaioko** ikasleek egin zuten karrera bukaerako proiektu bezala
- **EHUKO Filosofia** fakultatean, IKA MIZKAREN ondorioz, **euskararen hausnarketa talde bat** sortu da eta gaur egun martxan darrai.
- Bideoetako **protagonistek** eta eztabaida mahaietako **gonbidatuek inplikazioa** eta **atxikimendua** adierazi dute. Eztabaida saioetan **behin baino gehiagotan parte hartu nahi** izan dute, **elkarren artean ezagutzeko aukera izan dute eta harreman** ezduak sortu izan dituzte, eta batzuek **beraien jarraitzaileak edo publikoa** bertatik bertara **ezagutzeko aukera** izan dute. Azpimarratu behar da gonbidatu eta protagonista hauek borondatez eta ezer kobratu gabe hartu dute parte IKA MIZKAN
- Zenbait fakultateetan, **ikasle erdaldunak** eta **atzerriko** ikasleek **mahainguruetan parte hartu** nahi izan dute, eta eztabaidarako galdetegi berezi bat prestatu zaie arazorik gabe.
- Ikasleei banatzen zaien materialarekin batera, **galdetegi bat betetzeko** eskatzen diegu. IKA MIZKA **hobetzeko eta baloratzeko** hainbat galderekin batera, **kultur kontsumo ohituren** inguruan eta **teknologia berrien eta sare sozialen erabileraz** galdetzen diegu. Galdetegi hauetatik ikasleen inguruko **informazio baliagarri ugari** lortzen da.

- **Eremu geografiko desbesdinetako errealitate linguistikoak** ezagutzeko aukera dute ikasleek. Normalean saiatzen gara gela **desberdinetako ikasleak** elkartzen (aurretik ezagutzen ez badira hobe).

Honela **laburbildu** daiteke IKA MIZKAre **ibilbidea eta bilakaera**.

URTE A	SAIO KOPURUA	GAI NAGUSIA	UNIBERTSITATEA	IKASKETAK
2012	Bakarra	Euskarak norberaren egunerokoan duen lekua: topikoak, estereotipoak, euskararen garrantzia egunerokoan, lehen hitza zein hizkuntzatan, konformismoa,...	EHU	Gipuzkoako Campuseko ikasle guztiei zuzenduta (Donostia)
2013	Hiru	Sorkuntza: hizkuntzak sortzeko prozesuan edo gaitasunean duen eragina. Sorkuntza disziplinene hizkuntza.	EHU	Ingeniaritza Eskola (Eibar)
			MU	-Goi Eskola Politeknikoa (Ordizia) -Enpresagintza (Irun)
2014	Hiru	Arlo profesionala: Lan munduan hizkuntzak duen garrantzia. Lan munduan euskara balore erantsi bat da?	EHU	Erizaintza Eskola (Donostia)
			MU	Enpresagintza (Oñati)
			DEUSTO	Komunikazioa eta Gizarte Zientziak (Donostia)

2015	Hiru	Euskarak sortzen dituen emozioak. Gertutasuna edo konfidantza isaldatzen du? Euskarak kolektibo baten kide egiten gaitu?	EHU	Filosofia eta Hezkuntza Zientziak (Donostia)
			MU	Ikus-entzunezko Komunikazioa (Aretxabaleta)
			DEUSTO	Enpresagintza eta Gizarte Lana (Donostia)
2016	Hiru	Teknologia berriak euskararen bidelagun edo etsai? Zein hizkuntzatan erabiltzen ditugu sare sozialak?	EHU	Informatika (Donostia)
			MU	Energia Ingeniaritza eta Eko-ingeniaritza (Hernani)
			DEUSTO	Lehen Hezkuntza eta Heziketa Fisikoa (Donostia)